

# Zezenak Nafarroan

Berriz ere nafarrak. Udazkenean «piperzaleak» izan genituen; orain ganaduzaleak\* dira. Abenduaren lehen astean egin zuten bilera handi bat Iruinean. Okelaren salneurriak behera omen datoz, haziendarentzako\* pentsuak, lurrongarriak eta bizitza gora doazen bitartean. Ez omen dago gaur ganaduzalearentzat pozbiderik. Hala diote nafarrok.

Ehundaka ganaduzale bildu ziren Iruinean, eta eupada garbi bat zuzendu zioten Gobernuari. Pentsuak eta gainerakoak gorakada bizkorrean doazen heinean,\* ez omen da posible lehengo salneurrietan jarraitzea. Izan ere, okerragorik ere gertatu omen da azken aste hauetan. Zerriaren okela merketu egin omen diete, eta ez etxeakoandreen onetan, bitartekoen mesedetan baizik.

Nafar ganaduzaleok eman dituzte beste datu jakingarriak ere. Litro esnea ematea 13,20 pezeta kostatzen zaie. Oilasko kiloa, berriz, 44-46 pezeta. Zerria 68-72 pezeta kiloko, eta 34-36 pezeta arraultze dozena. Hori dena, ganaduzalearen eskuetatik kalera ateratzea kostatzen zaiena, eta —jakina denez— berei inork ordaintzen ez diena. Beraz, hemen ere dirua galtzeko egiten omen dute lan. Datuok —dakigunez— ez dira ezeztatu. Eta hortik dator ganaduzaleen mehatxua:\* jateko ere ematen ez dienez, utzi egin beharko dute abeltzaingoa.\*

Bortizki\* mintzatu ziren gizonak Iruineko Sindikatu Etxean. Ikusten da, ez zituztela arrazoin denak «piper gerratean» erre. Norbaitek hala omen zioen: «Gauzak aldatzen ez baldin badira, Madrileko **Puerta del Sol**-en ikusiko nauzue. Beste tokitan taxuzko salmentarik ez badut, hara joanen naiz kamioikada zerrirekin; eta hantxe askatuko ditut denak, jendeak zer-nola galbiltzan jakin dezan».

Seriokiago zetorrèn proposamenik ere izan da: salneurriak aldatzen ez baldin badira, salmenta guztiak moztea proposatua zen. Merkatua okelarik gabe gera liteke Nafarroan, asmo hau egintzetara pasatuko balitz. Nafar ganaduzaleen bileran hartutako erabaki eta oharpenak hauk\* dira:

1. Ganadu-produzio gastuen eta ganaduzaleari ordaintzen zaionaren artean, sekulako aldea dago gaur. Ezinezkoa da egoera horretan jarraitzea.

2. Zuzenbide ororen\* kontra dago, produziogailuak gora eta gora doazen bitartean, okelaren prezioak Gobernuak —egiten duen bezala— dauden hartan atxiki\* nahi izatea.

3. Gobernuaren ekonomi politikak salmentari prezio goren batzuk\* ezarri behar baldin badizkio, premiazkoa eta bidezkoa da politikabide horren galerak gizarte osoak eramatea, ez ganaduzaleek bakarrik.

4. «Berriz ere garbi esan nahi dugu —diote ganaduzaleek—: gure eskabideak bidezko den neurrian entzuten ez badira, lortu nahi duguna erdiesteko,\* eskutan ditugun bide guztiez baliatuko gara».

Nafarroan geroz eta kontzientziatuagoak aurkitzen ditugu nekazari eta ganaduzaleak. Laborantzari gure gizarteak bizkarreratu dizkion zama\* apartekoez ohartu dira, nonbait. Jaso dugun laugarren puntu horretan, ba dirudi mehatxu serio bat dagoela, bitarteko egiten dabiltzan merkatari askorentzat. Ganaduzaleok, izerdia ematen duenarentzat eskatzen dute irabazia ere, ez besterentzat. Piper eta okela: gizarte akelarre honetan izanen dugu afari ederrik.

## ANTSO AMAIUR

daude, **dagoz**  
dezan, **daian**  
die, **deutse**  
diete, **deutsee**  
diote, **dinoe**  
dizkio, **deutsoz**  
zaie, **jake**  
zaio, **jako**  
zioen, **inoan**, esaten zuen  
zioten, **eutsoen**



DANTZATOKI GOXOA Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra  
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

**SOINU KOADROFONIKOA**

---

**AMA LUR** RESTAURANTA  
KAFETEGI



**MENCHACA**

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jantziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI  
Muelle de Uribitarte, 15 BILBO - 1